HTTP://WWW.DIARIOVASCO.COM/V/20100611/ALTO-DEBA/CLUBES-ARRASATE-DURANGO-RUGBY-20100611.HTML

---

ARRASATE-MONDRAGÓN

# Los clubes de Arrasate y Durango de rugby acuerdan su colaboración

***Competirán conjuntamente las tres siguientes temporadas. Incorporar buenos jugadores que eleven la calidad del juego, será uno de los objetivos del acuerdo***

11.06.10 - 02:12 -

NAGORE GOÑI | ARRASATE.Final del formulario




Los clubes de rugby de Arrasate y Durango competirán conjuntamente durante las tres próximas temporadas. Así los indicaron los responsables de los dos clubs en la rueda de prensa celebrada en las instalaciones de Mojategi. Mediante el acuerdo alcanzado, ambos clubs pretenden potenciar y favorecer la competitividad global y la consolidación de los equipos a todos los niveles, para lo cual unificarán recursos seleccionando y disponiendo a los jugadores en varias categorías según edad y destreza.

Tras varios meses de profunda reflexión y dos años trabajando juntos vizcaínos y guipuzcoanos han tomado esta determinación, cuya finalidad es hacer frente a la necesidad de incorporar desde categorías inferiores jugadores que eleven paulatinamente la calidad del juego. A través de este acuerdo, Arrasate y Durango buscan la cimentación y consolidación en la máxima categoría posible de un equipo sénior masculino. «Este es un deporte minoritario y aunque la base sea pequeña debemos hacer las cosas bien. La calidad debe fundamentarse en la formación y ese es el principal objetivo del acuerdo», señalaba Ramón Barrutia, presidente de Arrasate Rugby Taldea.

Pero este no será el único objetivo del convenio. En primer lugar pretenden consolidar en la máxima categoría deportiva posible un equipo sénior masculino, así como arraigar un equipo femenino en el actual contexto social, e incorporar desde categorías inferiores buenos jugadores que eleven paulatinamente la calidad del juego y que éstos sean cimiento y consistencia de futuras temporadas. Como indicaba el presidente del conjunto

vizcaíno, Juan Mari Iriondo, «el acuerdo no supone una fusión». En base al convenio firmado ambos clubs mantendrán su identidad, tanto en lo que a denominación como a indumentaria respecta. No obstante, compartirán jugadores.

Actualmente el Durango Rugby taldea juega en la División de Honor B, mientras que Arrasate Rugby taldea compite en Liga Vasca. Ante esto, el conjunto cerrajero ejercerá de filial de los vizcaínos, sin perjuicio de que los jugadores que despunten en Liga Vasca puedan competir con el equipo de División de Honor B, ya sean de Arrasate o Durango. De esta forma, Durango representará la competición mientras que Arrasate hará lo propio con la formación.

Cabe destacar que cada jugador realizará los entrenamientos físicos con el equipo correspondiente a la localidad donde resida, mientras que el trabajo con balón será con el equipo que esté compitiendo en ese momento. Las categorías inferiores y los equipos femeninos también se verán afectados por el acuerdo, y en este caso compartirán tanto indumentaria como denominación del equipo a la hora de competir.

Aratz Gallastegi, entrenador y director técnico del primer equipo de Durango añadía en la presentación del acuerdo que la unión será algo favorable para los dos clubs. «Los de Arrasate tendrán una oportunidad de realizar toda la trayectoria desde pequeños y los de Durango potenciarán su competitividad».

Gallastegi aseguraba también que ya se ha puesto en contacto con el Igor Isasi para coordinar y comenzar a trabajar los dos primeros equipos juntos. Finalizado el periodo de tres años, ambos clubes valorarán la conveniencia de continuar, reestructurar o finalizar con el proyecto común.

HTTP://WWW.MONDRABERRI.COM/MONDRABERRI/CONTENIDOS.ITEM.ACTION?ID=1746734&MENUID=5332418&ONLYPATH=TRUE

ARRASATE ERRUGBI TALDEA

Arrasatek eta Durangok kolaborazio hitzarmena sinatu dute datozen 3 denboraldietarako

**Bi taldeak elkarlanean arituko dira, horretarako jokalarien aukeraketa eta banaketa batera burutuko dute. Akordioaren zehaztasunak azaltzeko, prentsaurrekoa eskaini dute klubetako ordezkariek Mojategin.**

*Isei Barbero / 2010eko ekainak 8, asteartea*

---

**Arrasate** eta **Durango**ko errugbi taldeek hitzarmena sinatu berri dute datozen hiru denboraldietarako, hori dela eta **bi ekipoek batera lehiatuko dute 2010-2011 denboralditik 2012-2013 denboraldira** arte. Akordioaren berri emateko **prentsaurrekoa** eskaini dute Mojategin eta bertan bi klubetako ordezkariak izan dira. Arrasate Errugbi taldetik **Klaudio Merchán** eta **Ramon Barrutia** ordezkaria eta presidentea egon dira hurrenez hurren,durangarren aldetik berriz **Joan Mari Iriondo** ordezkaria eta **Aratz Gallastegi** kirol zuzendaria.

Hainbat hilabetetako hausnarketa sakon baten ostean bizkaitarrek eta gipuzkoarrek erabaki hau hartu dute, jokalari gazteenetatik hasita bi taldeak indartzea bilatzen duena. Proiektuaren muina senior taldeetan egongo da, helburua **ahalik eta kategoriarik gorenean senior ekipo bat finkatzea** izango baita.

**Ramon Barrutia**k azaldu duenez, "*hitzarmen honen bidez bi taldeetako lehiakortasuna handitzea nahi dugu, hala nola ekipo guztiak indartzea*". Horretarako elkarlanean arituko direla esan dute, "*errekurtsoak batuz eta*

*jokalariak adin eta mailaren arabera talde ezberdinetan banatuz*". Arrasate Errugbi taldeko presidentearen hitzetan "*kalitatearen oinarria formazioa da, eta akordio honen helburua hori da*".




*Ezkerretik hasita: Klaudio Merchán, Joan Mari Iriondo, Ramon Barrutia eta Aratz Gallastegi*

Sinatutako hitzarmenaren arabera **bi klubek euren nortasuna mantenduko dute**, bai izenari zein janzkerari dagokionez, halere jokalariak partekatuko dituzte. Gaur egun Durango Errugbi taldeak Ohorezko B mailan lehiatzen du, Arrasate Errugbi taldeak berriz Euskal Ligan. Gauzak horrela, **arrasatearrak Durangoko filiala** izango dira, eta Euskal Ligan lan ona egiten duten jokalariek Ohorezko B mailan jokatzeko aukera izango dute, Arrasateko zein Durangokoak izan. "*Ohorezko B mailari eustekoa akordio hau oso lagungarria izango da Durangorentzat*", esan du **Joan Mari Iriondo**k.
Testuinguru honetan Durangoko taldearen lana lehiatzea izango da, Arrasatek berriz jokalariak trebatuko ditu. Jokalariek norberaren herriko taldearekin burutuko dituzte entrenamendu fisikoak, baloiarekin egin beharreko prestakuntza berriz une horretan jokatzen ari den taldearekin izango da. **Aratz Gallastegiren ustez akordio honek onurak ekarriko dizkie bi taldeei**: "*Arrasateko jokalariek ibilbide luzeagoa izango dute, Ohorezko B mailan jokatzeko aukera izango baitute; Durangon, berriz, lehiakortasuna areagotuko da*".
Esan bezala, hitzarmenaren **iraupena 3 denboraldietakoa** izango da, eta behin amaituta klubek balorazio orokorra egin, eta jarraitu, aldaketak egin edo akordioa bertan behera uztea erabakiko dute. Guzti honen atzetik lan handia dagoela onartu du Gallastegik, "*bai koordinazio, antolakuntza zein logistikari dagokionez*".
**Harrobian eta emakumeen taldean ere izango du eragina** hitzarmen honek, eta kasu honetan ekipo hauek bai janzkera eta baita taldearen izana ere partekatuko dute lehiatzerako orduan. Ekipo hauek garapen bateratua izango dute, honako kudeaketa hau aintzat hartuta: Ekintzen programazio eta plangintza, kirol eta irudi formatuak, gastuen banaketa eta jokalariek proiektuarekin bat egitea sustatu.

## Hitzarmenaren helburuak

Arrasatek eta Durangok sinatu berri duten **hitzarmenak hiru helburu ditu**: Lehenik eta behin senior mailako taldea mailarik gorenean finkatzea, egungo testuinguru sozialean emakumezkoen taldeari indarra ematea, eta harrobiko

kategorietan jokalari onak trebatzea jokoaren kalitatean hobetu eta etorkizunean klubeko oinarria izan daitezen.
Esan beharra dago proiektu hau ez dela berria Durango eta Arrasateko taldeentzat, historian zehar **klub hauetako gazte mailako jokalariek hainbat aldiz osatu baitute ekipo bateratua**. "*Azken lau urteetan elkarlanean aritu gara*", esan du Iriondok. Aurrekaririk gertuena amaitu berri den denboraldian izan dugu, bi taldeetako emakumeek batera lehiatu baitute Ligan, amaieran 3. postuan sailkatuz.





14 | ARRASATE | KIROLA — GOIENKARIA 2010eko ekainaren 11

ERRUGBIA > AKORDIOA

## Lehiakorrago izateko bat egin dute Arrasatek eta Durangok

Senior mailako taldeek bat egingo dute Ohorezko B mailan eta Euskal Ligan lehiakorrago izateko

Ezkerretik eskumara *Kako*, Juan Manuel Iriondo, Ramon Barrutia eta Durangoko kirol zuzendari Aratz Gallastegi. X.U.

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Azken urteotan Arrasateko eta Durangoko taldeek bat egin dute kadete eta gazte mailetako eta emakumezkoen taldeak bateratzeko orduan. Eta datorren denboraldian senior mailako taldeek ere bat egingo dute. Halaxe azaldu zuten martitzenean ART-ko eta Durangoko errugbi ordezkariek: "Errugbia gutxiengo baten kirola da, horrek esan nahi du guk harrobi txikia dugula, nahiz eta badatozen jokalariak. Hala, gure nahietako bat jendeak errugbian jokatu ahal izatea da, baina lehiakor ere izan nahi dugu, eta horregatik egin dugu akordio hau Durangoko taldekoekin, lehiakorrago izateko helburuarekin", azaldu zuen ARTko ordezkari Ramon Barrutiak.

Hala, datozen asteotan errugbian jokatu nahi duten jokalari kopuruak nabarmen gora egiten ez badu, datorren denboraldian Arrasatek eta Durangok talde bat osatuko dute Euskal Ligan –Arrasate hor ibili da jokatzen–, eta bestea Ohorezko B mailan: "Arrasaten badaude jokalari batzuk gorago jokatzeko asmorik ez dutenak, baina beste jokalari batzuek proiekzio polita izan dezakete, eta haiek aukera ederra izango dute akordioari esker".

Hala, Arrasateko entrenatzaile Igor Isasik eta Durangoko entrenatzaile Aratz Gallastegik erabakiko dute nortzuk egongo diren Ohorezko B mailan eta nortzuk Euskal Ligan.

### LEHIAKORTASUN BILA

Akordio horrekin bi taldeetako ordezkariek espero dute bi talde horietan lehiakortasuna sustatzea, goian egon nahi duenak serio entrenatu beharko duelako, eta goiko taldean dagoena ezingo delako lasaitu, behekoak bultzaka etorriko direlako.

Durango taldeko presidente Juan Manuel Iriondok ere garbi zuen hori: "Urtero-urtero zailtasun handiak ditugu bi talde osatu ahal izateko, eta garbi izan behar dugu taldeen helburuak zein izan behar duen. Behekoak harrobi lana egin behar du, eta goiko taldeak ahalegindu behar du ahalik eta goren egoten; izan ere, azken denboraldietan zailtasun handiak izan ditugu kategoriari eusteko. Hala, Arrasatek jarraituko du Arrasate izaten eta Durangok Durango. Taldeak ez dira desagertuko, baina lehiakorrago izateko batuko gara".

### HIRU URTERAKO HITZARMENA

Arrasatek eta Durangok urteak daramatzate elkarrekin lanean, baina orain, akordio formala egin dute, hiru urterako.

Bestalde, aurkezpenean argitu zuten Euskal Ligako taldeak Arrasaten jokatuko dituela partiduak eta Ohorezko B mailakoak Durangon.